



Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

JAURLARITZAREN KONTSEILUAK “EUSKADI INFORMAZIOAREN GIZARTEAN 2010” PLANA ONARTU DU

EIGP 2010: Euskadiko Agenda Digitala deituriko “EUSKADI INFORMAZIO GIZARTEAN” PLAN berriak ikuspegi-aldaketa dakar aurrekoaren aldean: IKTak erabiltzen dituen gizartea izatetik hazkunde iraunkorra sorrarazten duen, herritarren baterako erantzukizunak eta herritarrek erabakiak hartzeko duten parte-hartzea handitzen dituen, eta jakintzan oinarriturik bizi-kalitatea sustatzen duen gizartea izatera igarotzea da erronka. Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa da, Sail guztien inplikazioarekin, eta aldi berean gainerako eragile eta erakundeak gonbidatu nahi ditu, Informazioaren eta Jakintzaren Gizartea eraikitzeko beharrezkoa den kultura-aldaketa horrekin modu aktiboan bat egin dezaten.

Plana diziplina anitzeko hausnarketa-prozesu baten ondorio da. Horren ondorioz, lan- eta eztabaida-taldeak sortu dira, Euskal Administrazioaren barneko eta kanpoko hainbat pertsonaren parte-hartzearekin. Bost jardun-eremu bereizi dira, eta bakoitzak bere programak ditu:

Herritartasun Aktiboa –

Inklusioa bultzatzeko eta hesi digitalaren modalitate guztiei aurre egiteko, euskal herritartasuna herritartasun aktibo gisa planteatu nahi da, honako programa espezifiko hauen bitartez:

- Bizitza osoko ikaskuntza
- Ikastetxea 2010
- Inklusioa
- Nire etxea Interneten

- Herritarren parte-hartzea

Enpresa Berritzailea –

Enpresentzako programa da, eta informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera intentsiboak eta estentsiboak enpresen lehiakortasuna hobetzea du helburutzat, produktu eta zerbitzu aurreratuak sortzerakoan berrikuntza ekarriz. Jardun-eremu honetan honako programa hauek jarri dira abian:

- Infozerbitzuak
- Enpresentzako jardunak
- IKTen eta Ikus-entzunezkoen eskaintzarako jardunak
- Administrazioak gidatutako inpaktu handiko proiektu integralak

Zerbitzu Publiko Digitalak –

Kultura berri bat garatzea, zerbitzu publikoen prestazioan ahaleginak batuz eta elkarreraginez euskal gizarte moderno eta aurreratuaren alde, honako programa hauen bitartez:

- Barne-digitalizazioa
- Administrazio arteko elkarreraginkortasuna
- Zerbitzu digitalak
- Edukiak (Atariak)

Euskadi sarean -

Euskadi sarean egon dadin ziurtatzea, ingurune digitaletan euskal kultura eta hizkuntza babestuz eta Interneten erakuslehoan euskal turismo-baliabideen eskaintza aurkeztuz. Programak honako hauek dira:

- Euskal kulturaren eta euskal kultura-ondarearen aldeko zerbitzuak
- Euskaraz erabateko esperientzia digitala ahalbidetzeko zerbitzuak
- Euskadik kalitatezko helmuga turistikoa gisa duen irudia indartzeko zerbitzuak.

Infoegiturak –

Euskadi Informazioaren Gizartean sartzeko beharrezko *Infoegiturez* hornitzea, ekimen hori euskal geografia osora hedatuz. Telekomunikazio-azpiegituretatik haratago, Infoegiturek Interneten kalitatea bermatzeko lanabesak ekartzen dituzte, sarearekiko irisgarritasuna, segurtasuna eta konfiantza ziurtatuz. Honako programa hauek dituzte:

- Infoegitura aurreratuak irisgarritasunaren, segurtasunaren eta konfiantza digitalaren eremuan
- Eguneratze teknologikoa

Erakunde-agenda digitalak –

Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoaz gain, estrategia horren bitartez Euskadiko gainerako eragile eta erakundeei ere gonbidatu nahi zaie prozesuarekin modu aktiboan bat egin dezaten. Horretarako, zenbait mekanismo antolatu dira integrazio hiria izatea ahalbidetu eta errazte aldera. Arlo honetako programa espezifikoak honako hauek dira:

- Tokiko Agenda Digitalak bultzatzea
- Nazioarteko lidertza Agenda Digitalak sustatzerakoan
- e-Demokrazia

Eusko Jaurlaritzaren ustetan, teknologia berriek hainbat norabidetan aurrera egin ahala, zerbitzu aurreratuak sortzeko aukera berriak agertzen dira. Gainera, zerbitzu horiek gero eta sofistikatuagoak izango dira, eta inpaktu handia eragingo dute erakundeen lehiakortasunean eta pertsonen bizi-kalitatean. Erronka berriek ekipamendu eta azpiegiturak etengabe eguneratzea eskatzen dute, baita eduki eta zerbitzuak hobetzea eta horiek erabiltzeko trebakuntza eta jakintza sustatzea ere. Gizartea erronka horietara egokitu behar da, eta Informazioaren eta Jakintzaren Gizartearen eremuko plan berriek premia horri erantzun nahi diote. Gaur egun, teknologia berriek erakundeen eraginkortasuna bultzatzeko lanabesa osatzen dute, baita berrikuntza errazteko mekanismoa ere.

Azken urte hauetan eginiko ahaleginei esker, Euskadik informazioaren gizartearen oinarritzko elementuak bereganatu ditu. Gaur egun, herritarrek, Administrazioak eta erakundeek informazioaren gizartearen funtzionalitateak eskuratzeko beharrezko baliabide eta eskumenak dituzte eskura. Euskadin, 16 urtetik 74 urtera bitarteko biztanleen % 52k Internet erabiltzen du, eta horien %

90ek gutxienez astean behin erabiltzen du Internet. Enpresei dagokienez, % 64k du Interneterako konexioa; 10 langiletik gorako enpresak aintzat hartzen baditugu, ehunekoa handitu egiten da: % 94.

2002tik 2010erako jauzi kualitatiboa

Eusko Jaurlaritzak bere egin du gizartearen aldaketa kualitatiboaren nahia, eta aldaketa hori bultzatzeko eredu berria eraiki du. Aldaketa kualitatibo horrek asmoen ikusmoldea bera ere aldatzea dakar berekin, honako hauen arabera:

- IKTak sartzetik *Erabateko Gizarteratzera*
- Konektibitateetik *Usagarritasunera*
- Alfabetatze Digitaletik *Autonomia Digitalera*
- Teknologia Berrietatik *Konponbide Teknologikoetara*
- Kanal Bakarretatik *Multiplataforma eta Multikanaletara*
- Proiektu Berezietatik *Proiektu Traktoreetara*

Aurrekontua

“Euskadi Informazio Gizartean 2010” Planaren finantziazio orokorra **285.435.200€** da, eta honela banatzen da:

- Herritartasun Aktiboa-	104.153.000€
- Enpresa Berritzailea-	81.793.200€
- Euskadi sarean-	6.670.000€
- Infoegiturak-	87.469.000€
- Erakunde-agenda digitalak-	850.000€
- Komunikazioa eta kudeaketa-	4.500.000€